

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1359

368/2015 EBAZPENA, otsailaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, EAeko Auzitegi Nagusiaren 2014ko urriaren 14ko 547/2014 Epaiaren betearazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzekoa. Epai horrek zerikusia du Andere Otegui Rotaecherekin, FEM Psikiatria kategoriakoa (2008ko EPE).

EAeko Auzitegi Nagusiaren 2014ko urriaren 14ko 547/2014 epai judiziala ikusi da, eta agindu judizialari dagokion administrazio-espeditatea aztertu da, honako hauetan oinarrituta:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 9ko 4253/2008 ebazpenaren bidez onartu ziren medikuen kategoriako (hainbat postu funtzional) oinarri espezifikokoak; horien oinarri orokorrak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez onartu ziren.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren 2010eko urtarrilaren 13ko 13/2010 Ebazpenaren bidez onartu zen gairitu zutenen zerrenda, FEM Psikiatria kategorian, eta Andere Otegui Rotaechere andreak 53,0000 puntu atera zituen oposizio-fasean.

Gero, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren maiatzaren 27ko 367/2010 Ebazpenaren bidez, txanda liberako zeudenen zerrenda onartu zen, FEM Psikiatria kategorian; zerrenda horretan, 97,8000 puntu atera zituen Andere Otegui Rotaechere andreak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 8ko 2642/2010 Ebazpenaren bidez, behin betiko onartu zen txanda libreko – FEM Psikiatria kategorian– izangaien eta esleituen zerrenda (2010-11-10eko EHAA 216. zk.), non Andere Otegui Rotaechere ageri den 97,8000 punturekin eta lanposturik gabe.

Bigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 8ko 2642/2010 Ebazpenaren kontra, gora jotzeko errekurtoa ezarri zuen Andere Otegui Rotaechere andreak, eta, ondoren, administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri zuen (157/2011 laburtua).

Prozedura judizial horri lehen auzialdian amaiera ematen dion epaiak (Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. Epaitegiaren 2012ko maiatzaren 17ko epaia) ezetsi egin zuen administrazioarekiko auzi-errekurto hori.

Gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, 2014ko urriaren 14an, apelazioa partzialki onartu eta apelazioan errekurritutako epaia ezeztatu egin zuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari dagokio epaia betearaztea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osaki-

detza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren estatutu sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ematen dizkioten eskumenen arabera.

Bigarrena.– Administrazioarekiko auziez arduratzen diren epaitegi eta auzitegiek beren epaiak betearazteko eskumena dute; prozesuko alderdiek, berriz, epai eta ebazpen horiek bertan adierazten den moduan bete behar dituzte, horixe xedatzen baita administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 103.2 artikuluetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2014ko urriaren 14an emandako epaiaren ondorioz, 2,0100 puntu konputatu zitzaizkion Andere Otegui Rotaèche andreari prestakuntzaren atalean; beraz, haren puntuazio orokorra 99,8100 puntura igotzen da FEM Psikiatria kategorian.

Behar diren izapideak egin ondoren, Andere Otegui Rotaèche andreari Bizkaiko osasun mentaleko sarean (Zaldibarko ospitalean) lanpostu bat esleitu beharko zaio, txanda librean, FEM Psikiatria kategorian.

Hirugarrena.– Prozedura izapidetzean egin diren gainontzeko administrazio-egintzak, hain zuzen ere, orain aldatutakoekin zerikusirik ez dutenak, bere horretan utziko dira, gauzatu ziren moduan (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 66. artikulua).

Laugarrena.– Prozedura hau izapidetzean, interesdunei entzun zaie, kontuan hartuta azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidea-aren Legearen 84. artikuluan xedatutakoa.

Azaldutako guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2014ko urriaren 14an Andere Otegui Rotaèche andrearen eta 2008. urteko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren inguruan emandako epaia bete dadin agintzea.

Bigarrena.– Epaitza izapide hauen bitartez gauzatzea:

1.– Andere Otegui Rotaèche andreari prestakuntzaren atalean 10,3100 puntu aitortzea; beraz, 2008ko EPEren testuinguruan, FEM Psikiatria kategorian, haren azken puntuazioa 99,8100 puntura igotzen da.

2.– Lanpostu bat esleitzea Andere Otegui Rotaèche andreari, Bizkaiko osasun mentaleko sarean (Zaldibarko Ospitalean), txanda librean, FEM Psikiatria kategorian.

3.– Andere Otegui Rotaèche andrea pertsonal estatutario finko izendatzea FEM Psikiatria kategorian, Bizkaiko osasun mentaleko sarean (Zaldibarko ospitalean).

4.– Andere Otegui Rotaèche andreak hilabeteko epea izango du destinoaz jabetzeko, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Destinoko lanpostuaz jabetzeko ekitaldia Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusian izango da, egoitza zentrolean, izangaiak aldeztatik zita eskatuta, eta esleipendunek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute ekitaldi horretan:

– NAN, pasaporte edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalentzat, eta dokumentu mota bera

langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetakoz nazionalitatearen dutenen kasuan.

– Elkargoko kide izatearen ziurtagiria.

– Zinpeko aitortzea edo hitzemandakoa honako hau jakinarazteko: ez dela diziplinako espediente baten bidez inongo administrazio publikotako zerbitzuetatik bereizi eta ez dagoela zeregin publikoetan jarduteko ezgaituta.

Epearen barnean, ez baditu aipatutako agiri horiek aurkezten edo horiek aztertuta ikusten bada lanpostuko/kategoriako baldintzaren bat ez duela betetzen, ezingo du hartu pertsonal estatutario gisa esleitutako lanpostua, eta baliogabetuta geldituko dira haren ekinbideak; horrez gain, erantzukizuna ere eskatu ahal izango zaio hasierako eskaera faltsutzeagatik.

Era berean, ohartarazten da epearen barnean edo, hala dagokionean, epe luzatua destinoaz jabetzen ez bada hautatze-probatetik eratorritako eskubideak galduko dituela.

Goragoan esandakoa kontuan izanik, destinoaz jabetzen bada, izapide hori bete eta hurrengo egunean hasi beharko du zerbitzu sanitarioetako erakundeetan.

Hirugarrena.– Ebazpen honetan xedatutakoaren eraginekin at geratzen diren gainerako egintza eta izapideak bere hartan jarrai dezatela agintzea.

Laugarrena.– Ebazpen hau EHAAren argitaratzeko eta Andere Otegui Rotaetxe andreari eta EAEko Auzitegi Nagusiari jakinarazteko agintzea.

Bosgarrena.– Epaitegi horri dagokio epaia betetzeko izapideetan sor daitezkeen gorabeherak aztertzea eta ebaztea, halaxe ezartzen baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 109. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 13a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.